

KOSTUAK

Gure proiektua aurrera eramateak argi dago irabazietaz gain kostu handiak ekarriko dituela. Kostu hauek aldakorrak izan daitezke adibidez autoen plakak egiten erabilitako baliabidetan gastatutakoa (Unitate bakoitzeko materiala) bestalde kostu finkoak daude , hauek adibidez kotxeak egiteko erosten dugun materialen kostuak izan daiteke edo langileen soldatak (2.000€/hilero)

Gure salmentak aurrera eramateko kontuan hartuko dugun gauza garrantzitsuena salmentan jartzen ditugun autoen kalitatea izango da, prezioa alde batera utzita. Burura etorri zitzazgun ideia izan zen soilik gure produktuaren kalitatea bermatzea momentu guztietan. Azken finean, gure produktuaren merkatuak diru kantitate handia suposatzen du, auto bat da eta auto guztiak diru kantitate handia suposatzen dute, baina, gure produktua gama altuko autoa da eta gastu handiagoa suposatuko du bezeroentzat.

Balioan oinarritutako negozio-eredua jarraituko dugu eta gure autoen kalitatea bermatuko dugu bezeroen erosotasunerako. Gure autoa Cupra markakoa da (Seat markaren gama altua) eta barrutik modernoa eta berriztagarria da, puntako teknologiaz baliatzen da, erraztasun asko ditu eta oso eroso da bidai luzeak egiteko, auto "familiarra" da handia delako eta hasiera batean, ekonomikoki inbertsio bat suposatzen du.

Hileroko taula

<u>DIRU-SARRERAK</u>	<u>KOSTU FINKOAK</u>	<u>KOSTU ALDAKORRAK</u>
Publizitatea: 50.000€	Soldatak: 2.000€(20)	Unitate bakoitzeko materiala: 15.000€(20)
Salmentak: 40.000€/kotxe (10)	Alokairua: 5.000€/hilero	
Mailegua: 100.000€	Hasierako inbertsioa: 10.000€	
Autoen alokairua: 1.300€/hilero (20)	Maileguaren interesak: 1.500€/hilero 100 hilabetez	
GUZTIRA: 576.000€	GUZTIRA: 356.500€	

Taulari dagokionez, diru-sarrerak baliatuko garen dirua erakusten du. Publizitatean 50.000€ irabaziko ditugula aurreikusten dugu, izan ere, nazio mailan egingo da publizitatea. Salmentetan 400.000€ irabaztea aurreikusten dugu, hilero 10 auto saltzea espero dugulako. Bankuari eskatuko diogun mailegua 100.000€-koa da eta aldi berean kostu bat suposatuko digu. Diru-sarrera lehen hilean bakarrik izango da, ondoren, ez dugu mailegurik izango. Azkenik, autoen alokairutik ere etekina aterako dugu, aurrez aipatu bezala aireportuetan edo taxi gisa erabiliko direlako, baita ere turismo guneetan, luxuzko auto bat bezala eta alokairuan 20 auto alokatzea espero dugu hilero. Gure etekinen %50a kotxeen alokairutik ateratzea espero dugu, %30a mailegu batetik jasotako dirua izango da, banku batetik jasotako mailegua izango da proiektuari hasiera emateko eta azken batean falta den portzentaila, %20a zehazki, publizitatea egitegatik jasoko dute. Marka ezberdinak ordainduko digute beraien produktuak edo marka azaleratzeko eta horrek diru-sarrera handia suposatuko du guretzako.

Kostu finkoei dagokionez, hainbat kostu finko ditugu. Lehena soldatak dira: gure langile bakoitzari 2.000€-ko soldata ordainduko diogu hilabetero. Horrez agin, gure autoak beste enpresa batzuen konzesionarioetan egongo direnez, hauei diru kopuru bat ordaindu behar diegu. Diru kantitate hori 5.000€/hilero izango da. Gainera, gure enpresarako inbertsioetan dirua gastatuko dugu: langileentzat uniformeak, salmentan arituko diren langileentat iPad bat, bulegoetarako ordenagailuak, gainontzeko materialak... horretan 10.000€ gastatzeko asmoa dugu. Azkenik, maileguaren interesak. Enpresa proiektua hastean bankuari eskatutako mailegua itzuli behar diogu. Bankuak gure maileguari %50eko interesa ezarri dio, beraz, 150.000€ itzuli beharko ditugu. Gastu hau oso altua denez, 100 hilabetetan ordainduko dugu, hilabetero 1.500€ ordainduz.

Kostu aldakorrak 15.000€ izango dira kotxe bakoitzeko, hilero autoen salmentaren segida egin ondoren autoa egiteko materiala gehiago edo gutxiago erosi beharko dugulako. Etorkizun batean kostu aldakorra handiagoa izatea espero dugu auto gehiago salduko ditugulako. Berez, kostu finko bat da autoak ekoiztea, modelo berdineko autoak direlako eta horiek ekoizteko, material berdina behar delako eta horrek suposatzen du beti gastu berdina izatea, baina ez dakigunez zenbat auto salduko ditugun hilabete bakoitzeko, kostu aldakorra dela esan dezakegu. Adibidez, guri hilabete batean 20 kotxe ekoiztea eskatzen badigute, 300.000€-ko gastua izango litzake, aldiz, 5 kotxe eskatzen badigute eskaintza murriztu delako, 75.000€ gastatuko ditugu eta azken finean bi kantitate horiek desberdinak dira eta aurreikusi ezin den gastua da. Arrazoi horren ondorioz, gastu aldakor bat bezala jarriko genuke.

Diru-sarrerak eta kostuak balantzan jarriz, 219.500€/hilabetero-ko etekina ateratzea aurreikusten dugu enpresak bide onetik jarraitzen badu.

Ondorioz, hau dena kontuan izanda, esan dezakegu gure diru-sarrerak publizitatea, salmentak, mailegua eta autoen alokairua direla. Horrez gain, kostu finkoak dira gure gastu nagusiak, bertan soldatak, alokairua, hasierako inbertsioa eta maileguaren itzulera edukiz. Horrez gain, kostu aldakor bakarra izango dugu: unitate bakoitzeko materiala. Azken finean, gure produktua epe luzeko proiektua da eta hasieran egin behar den inbertsioa garrantzitsua eta horregatik, hasieran nahiz eta gastu handia izan, etekin handiko proiektua dela suposatzen dugu, ez da gure helburu nagusiena dirua ateratzea, baina azken finean aurrera eramateko eta kutsadura murrizteko garrantzitsua izango litzake inbertsioa handiagoa izatea eta ahal den diru gehiena edukitzea auto gehiago ekoizteko. Luzerako proiektu bat da, etekin handiak izango dituen etorkizunean, bai sozialki, bai ekonomikoki hazteko eta bertan inbertitzen jarraitzeko